

ELEZAHAR APOKRIFO BAT

Antton Alberdi Estibaritz, 16 urte

Elgoibar

Adarraren hotsak moztu dit loa, begiak zabaldu eta laster batean haikatuz. Leiho ondoan pausatu naiz zalu, bertan irrstatzen diren xortetatik haratago ingurinak zorrotz begizatuz. Behelainoak ez ditu gauzak errazten, lausoturik baitakusat guztia, baina zoramendua nabari dut airean, artegatasunak izkina oro ferekatzen duen anartean. Xirimiriaren marmarrak dardara misterioitsu bat eragiten dit gorputzean. Atean kolpaturiko bi golpe mardokik guztiz atzarri naute.

Ilunduran barnaturik atearen krisketa heldu eta harrabots sobera gogaikarri batez urgatzirik ireki dut. Euripean, ilun eta antzarka, zaldun misterioitsu baten iduria ageri da. Zaldiaren hatsak haren hitzak entzungaitz egiten ditu. Euriak uxaldutako aurpegi ilunetik hitz batzuk irten dira.

–Badatoz! Arribatu dira!! Iruñea bota dute!!!

Toberaren tun-tunak belarriak zorroztu dizkit atea hertsatzearekin batera. Apenas argi hits ahalkor bat ematen duten ezko zaharrak itzali, aizkora espaldan hartu eta gibelego atetik jalgi naiz.

Badirudi azkena naizela bere burua gerlarako eskaintzen, dozenaka lagun baitira bildurik jada. Jende artetik at Ramon Pagoeta eta Joaquinot Etxehandia ozenki eleka ari dira.

–Joaquinot, Karlomagnoaren jendarmeriak Iruñea bota du eta euskaldunon lurren bila datoz. Frantziarat omen doaz, bainan itzulian ez gara mendekiorik gabe geldituko. Zerau aukeratu zaitugu euskaldun gerlarion jaun, ezen zu baitzara inguruotako ausart eta adoretsuena.

Kostata bainan Felixek bere arrapostua eman du hagitz urduri:

–Auritzen itxaronen diegu. Ez gara sobera, bainan gure kuraiak ezer baino gehiago balio du eta horrek garaipenera eramanez gaitu!

Jendearen errespondatua, euforiaz eta zoramen-
duz josia, deblauki hautsiz, tronko baten gainera hupatu eta daldararik gabe irmo mintzatu naiz:

–Inozo eta mentsak dirudigu. Zer igurikimen ditugu mila edo apika bi mila gerlariren aurka gudukan gaina hartzeko? Hausnar egin dezagun, aialdekook. Berrehun baino gutxiago gara, ehunera arribatzen bagara behintzat. Ezin dugu egun argitan ordoki batean gatazka egin, zapalduak, erahilak eta umiliatuak izanzen baikinakeke.

–Nor zara zu, bainan, Gartxot Irazabalgoa –moztu dizkit erranak Ramon Pagoetak–, gure ezagumena horrela dixidatzeko? Hilaren hamalaurako hemen izanen ditugu, eta zuzen gatazkatea beste ilkibiderik ez zauku arrastatzen. Edo otutzen al zaizu bertze burutazio hoberik, egun betan drezatu eta Karlo-magnoren jendarmeriari gailentzeko?

–Ez, jauna, ez– erresponda diot burua oihertuz–. Barka iezadazu, ez nuen zure adimendua kordoka jartzerik nahi.

Buelta erdika emanik lanbro lainoan kapen egin dut. Aita zenduaren ahotsek atea jo dute ene buru-erraietan. Irmo eta gogoz hasi da eleka; kezkatu-rik, ordea.

–Seme, zerbait egin beharra daukak. Egoerak ezin dik horrela jarraiki. Har ezak ene katabutean dagoen adarra eta jo ezak ozenki. Euskaldunon bateraketa beharrezkoa diagu garai beltz hauetan. Hitaz konfiantza osoa diat, ez iezadak estakuru egin, Gartxot.

Etxera arribatzean, zorroan sagar, ogi eta intxaurrak goititu, aita zenaren adarra jaso eta Ibañe-tarako bidezidor pelkarrean goraki, euri tanta guri-kien zartakoak pairatuz, euskaldunon geroari buruzko gogoeta ilunean pulunpatu naiz. Ximenki dut Karlomagno gure bilaka datorrela. Zaragoza-ren konkista desenkusa hutsa baizen ez da, gure hegietan barna iharduki ahal ukaiteko. Bainan ez dute lortuko, ezen ez baita ludian bertze herridirik bere aberria horrela maite duenik, eta guztiok bat eginik hil arte gatazkaturen dugu.

Ibañetako malda malkartsuetako haize hezeak esnatu nau ametsetik. Zuhamuen adarren gainetik aldizka, orain bai eta orain ez, dakusaten argizagiaren argi ahalketia, lainoen artean leku eginez dabilena, gainbehera dator. Enbor sendoko arte izugarriak zutikatzen dira, ospel eta irmoak, han eta hemen, soilgune bakun batzuetan. Haien artean lizar beneragarriek eta haritz galant gutxi batzuek beren ernamuin jaioberrien orlegi arreska agertzen dute. Finean, ilunaren eta bustiaren eraginez beltzaturiko ordoki batera irten naiz, baso goibela gibelean utziz. Metro gutxi batzuk gorago Ibañeta gaineko harrespila begi bistan dut.

Adarra espaldatik kendu, aire hezea sakonki barnatu eta jo egin dut ozenki. Haren oihartzunak Euskal Herri osoan entzuten omen dira, eta apika horrela izanen da, hori baitzion gure aita zenak. Denbora luzean agerri da dardara esperantzagarria. Pirinio, Nafarroa, Itsas hegi, Sortalde eta Sartaldeko euskaldunen belarriak tinko jartzeko aiutarako deia. Eta haize leunaren lagungoaz, harrespilaren babesean, ereizioaren hamalauko goizalde honetan, loak azarkatu nau geroak zer erreparatuko duen jakin gabe.

* * *

Irrintzi hotsak dira, bai. Ez da ametsa. Zabaldu ditut begiak. Lo luzetik jaiki eta ingurinarara egin dut so. Lastargien argitan bando guztietatik datoz:

Baztan aldetik, Iratiko basoetatik, Baigorritik, euskaldunak dira. Nire heiagoraren oihartzunari men, eta adarren eretak dantzatzuz harrapaka datoz Euskal Herriaren garaitiaren indarrak.

–Zeuon adarraren zarraparrak heldu dira geure inguruetara eta ahalik eta arinen igon gara geu be hirurehun lagunegaz Anbotoko harkaitzetatik Iruñeko sarraskiaren mendekuan parte hartzera. Zelan ez ba! –erran dit harrotasunez gizon mardul batek–. Joanes da nere izena, zeruan edo infernuan, mendian edo itsasoan, ni eta nire lagunen laguntza beti izango dozue heriotzak lagatzen deuskun artean.

Aizkoraz eta makilaz horniturik datoz Bizkaiko lagunak. Bilo luzeak dituzte larruzko kordez batuak, eta animalia larruz eginiko jantzi astunak dituzte soinean bai gizon eta baita andereek ere.

–Gure inguruak ere astindu dizkik zuen deiak –heiagora egin du bertze emakume batek– eta Txindokiko maldetatik iritsi gaituk herriaren mendekuan laguntzeko. Felixia nauk. Ez haiz gure laguntzaz damutuko.

–‘Orobat gü ere –moztu dio agure zahar batek–. Xiberútik jinak gíra laguntza ohereskatzéra eta züekíla gatazkatzera. Ürrikalmendu gabetarik istikatüren ditügü frantses jendarmeriak. Dominique niz, Akitaniako lagunkidéen burü’.

–Nafarroa osotik, Iñigo Aritzaren gidaritzapean, mila eta bortzehun aialdeko Orreagara gatoz gure laguntza opaltzera –erran du bertze gizon gazte batek gogoz–. Non dira basati horiek?

Zurbil gelditu naiz. Adarrarekin harrabots egin eta ordu gutxitan Euskal Herriak bat egin du Ibañetako gainean.

—Gaur, abuztuaren hamalauko gauerdian euskaldunok, Karlomagnoaren armadaz mendekatzeko batu gera hemen eta horrela izango da! Txiki-txiki egingo ditugul-oihu egin du bertze batek.

—Nolatan hamalauko gaua? Ez al da, ba, ereizioaren hamahirua gaur?— errespondatu diot zur eta lur.

—Ez gazte, zure adarraren deia duela gau bat entzun genuen gure inguruetan eta zure zeure esperantzaren ametsetak, lotan sostengatu zaitu egun oso batean— erran dit agure batek irriño alegeragarri bat loratuz.

Horrela izan da eta ereizioaren hamabortzeko goizaldean, Orreagarako bidea hartu dugu. Aialdekoak goait ditugu. Ez al da beranduegi izanen? Hala ere, bi egunez baratu gabe doan euriaren azpian bi mila eta hirurehun gudari Orreagara arribatu gara. Bainan helduera ez da ustea bezain atsegina izan. Auritzeko ordokiak hutsik daude eta herrian ez da arimarik agerri, agure zahar bat lekat. Enbor baten gainean dago eserita, txanoaren itzalpean dagoen aurpegi beltzetik irteten den pipa errez. Ez du bururik altxa, pentsakor dagoela dirudi.

—Joan egin dira —hitz zakar eta urratu batzuk irten dira iduri ilunetik—. Bidalkinak izpar txarrekin itzuli ziren atzo arrastirian, ugaldean gora hamar mila gizon baino gehiago dituzten bi talde baitatoz, lepo armatuak. Ez omen da zer eginik.

Igurikimen oro zulo ilun betan erori zait lipar batean. Ustekeriazko zenbatezkoak hamar aldiz zenbakoiztu dira eta ez dago zer eginik, agureak erran duen moldera. Bizkitartean haiek badatoz, eta mendekaldirik gabe joanen dira, euskaldunon betiereko etsipenerako.

Herria hutsik arrastatu da eta bakarrik trikatu naiz –jarraitu du agureak–, ez bainaiz ene aberria nola oinazpiratzen duten ezkututik ikusteko gauza. Gazte, zuk zerbait egin beharko zenuke gure herri-diaren alde, eta ez beste horiek bezala Altabiskarren ezabatu.

–Altabiskar erran duzu? –moztu diot ilusio olatu batek gorputza hartu didan liparrear–. Hori da, Altabiskarren atonduko diegu segada. Lurraldea hagitz ongi ezagutzen dut, han ez dute ilkibiderik.

Buelta erdia emanik jende aurrera zutitu eta oihuka, handioski mintzatu naiz:

–Karlomagnoaren jendarmeria eguneko lehen klarki lipitsekin arribatuko da Altabiskarrera. Bi andanatan banatuko gara. Felixaren, Dominique-ren eta Joanesen gerlariak sartaldeko labarretara joango zarete, Iñigoren Nafarroako aialdekoak sartaldera joango zaretelarik. Ni basoan pulunpatu-ren naiz ene herrikideak gudurako kuraieztatu ditzadan. Labarren hegietan enbor eta hartokak pilatuko dituzue. Hori bai, ez ezazue garrrik piztu, eta ez eretarik atera, ene ustekerien arabera, goizaldean hemen izanen baititugu. Guztiok berdin gatazkatuko dugu, denok baikara euskaldun eta oro baikara herridiaren aldeko gudari fidel. Ostantzerako

zuekin izanen naiz eta ez ahantzi, ez erasorik egin nire deia jaso arte.

—Har itzazue arku eta zagitak, aizkorak eta aitzurrak, makilak eta gudurako arnes oro, Altabiskarrerera baikoaz frankoen ehizan!!

Eta horrela irten gara gizon, emakume, gazte eta zahar Ibañetako maldetan gora. Bide erdian Altabiskarko igarobidera arribatu aitzin, bitan berduratu gara. Nafarroako mila eta bortzehun aialdekok sortalderako harbidea hartu dugu, beste guztiak sartalderantz joan direlarik.

Arribatu gara tulunbioaren hegietara, ebaska jarri, eta lanari ekin diogu. Pagoak pikatu, harriteak pilatu, tragazak prestatu. Euriaren lagungo betibatekoarekin gudurako prestatzen utzi ditut ene aberkideak, herritarren bilaka harrapaka partitu dudalarik.

Pago artean erdi itsu noraezean nabil. Behe lainoa da nagusi ingurinan eta nekosoa zait aialdekoak opatzea. Argi-urratzeko otsoen uluak bertzerik ez dira euriaren erasiaren gainetik hautematen. Konkorrek ez dituzte beren gordelekuak largatu orano eta loreek mokorturik lotan darraite.

Pendoitzean gora noa, Zarten espaldan ingurinak begizatzen. Han, garaian, ke laino bat dakusat lanbroan nahasturik. Bertara hurrandu eta ene herritarrak begietsi ditut su inguruan goitituta. Emeki, urriki, pausoak zaintzen hurrandu naiz haien heiagorak entzuteko desioan.

— Hemen jarraikiren dugu egunak argitu arte—oihu egin du ahots ezagun batek—. Eguerdirako

paseak izanen dira eta orduan berriroki ere bizitza normalari aurka eginen diogu, ezer gertatu izan ez bailitzan.

Zaldiaren kordei tira egin eta harrapaka jende artera irten naiz ororen harriziorako.

—Ezer gertatu ez bailitzan? —garrasi egin dut suminez josita—. Zer motatako euskaldunak gara gu gero? Iruñea hutsaldu dute plazer hutsez. Ez dira arabiarren bila etorriak, ez dira Zaragozaren bila iritsiak. Geronen bilaka datoz, geronen lurraldeak nahi dituzte franko horiek. Hori bai jaitsi dut ahotsa—, zeroriek ere gauza bera nahi baduzue, zerorien esku gelditzen da guztia. Herri bat omen ginen...

Besterik gabe buelta erdian jende artetik ilki eta gibelean larga ditut kanpamendua eta bertako lagunak marmarrak. Jalgitzeko gogoz bainan ezinean ihardukien eki gartsuari espalda emanaz burkaitzerako estrata hartu dut berriz ere. Tronpeta azantzek zorrotzu dizkidate belarriak.

Hemen datoz. Tulunbio hegian arrastatu naiz erdi kukuldurik. Lanbrodura artean estaldurik milaka kideren formak ageri dira zuloaren azpialdeko xendran barrena. Karlomagnoaren jendarmariaren lehenengo taldea, alajaina. Ehun bat metro gorago Iñigo dakusat grimasak eginez, zertaz ari den hautematerik ez daukadan arren. Bizkitartean, galtzada estutik iragan eta igaro, igaran eta irazi zaldi, gizon, zalgurdi eta hainbatek aurrera jarraitzen dute, gainera datorkiena susmatu ere egiten ez dutela. Suertez, behelainoa lagun bilakatu zaigu, gure irudiak burkaitzaren kantailetan ezku-

tuan gordez, argi-haste honetan gauzak asko erraztu dizkigularik. Gorantz abiatu naiz, Iñigoren posizio ingurura. Pendaitz baten gainean xut dago, aberkideei aginduak ematen, iritsi naizen liparrean.

– Agur, Gartxot. Jazarriren al diegu? –galdatu dit gogo eta amorrazio handiz–. Ene lagunkideek ezin dute gehiago igurikatu.

–Bigarren taldeari eginen diogu eraso –errespondatu diot segurantziaz– ez baitago horrenbeste begiralegorik eta lehen taldeak denbora nahikoa igarota ezin izanen baitu bertzeen aiutan etorri. Igurika dezagun apur bat une egokian jazar egiteko, bigarren taldeko erretagoardiari, alegia.

Horrela gelditu gara burkaitz gainetan etzanda begiak erroitzean iltzatuta. Lehenengo taldea igaran da eta bigarrenaren turuta azantzak ailegatu dira gure belarrietara. Karlomagnoaren ilobasoa: Erroldan, Anselmo Eginhardo aitzingidaria, Oliveros komandantea eta bertze hainbat gizon seinale omen datoz taldean. Egunak ilun jarraitzen du anartean eta tropak aurrera. Arrunkideak berriz, niri begira, urduri. Hegoaldekoek heiagora egin dute erretagoardia iraganbidean sartua dela adierazteko. Adarra esku artean hartu, eta indarrez jo dut. Haren aradak bailara guztian entzun dira eta harekin hasi da erasoa. Bi milatik gora euskaldun, Karlomagnoaren jendarmeriaren aurkintza, urrikalmendurik gabe, gatazkan hasi gara, ene herriaren gabezia bihotzean josita daukadan arren. Zuloan harrapaturik, arroka euriaren azpian, tragaza zaparradak ziztaturik, enborren setio-

az zapaldurik, xederan atzeman ditugu frantses soldaduak.

Ordu laurden daramagu gudaketan. Behealdea lainotuta agerri da eta ez dago sakaila begiesterik. Hala ere zuhamu, artetik enborrak eta harriak, dozenaka datoz geldiunerik gabe erroitzaren er-tzetara; metak ez dira amaitzen. Aireak arinago dirudi denborak aurrera egin ahala, baina amorrua da gure aurpegi-en islarik zehatzena. Behe aldeko oihu eta garrasiak isilduz doaz, ilundura are ilunago bihurtzen ari den bizkitartean.

Alde batetik bertzera, Zarten espaldan, arrapaladan ingurina begi-esten ari naiz, lagun guztien aurpegi nekatu bainan puztuak eta amorruz josiak ikusiz. Bihotza bor-bor. Ibañetako lepora noala adar hots ezagun batek guztion ekimenak moztu ditu. Haren arada bailitzan, behe lainoa haikatu egin da eta heia gora egin diet gudariei geldi daitezten. Guztiok igarobidera so gelditu gara. Adarraren hots sarkor-arak aitzinera darrai.

Lainoek, azkenik, zerurako bide zuzena hartu dute eta mendi gainetan izpi zehar batzuk egotzi dira zilar koloreko hodeiak gutxietsiz. Behe aldetik oihu ezagun batzuek zorroztu dizkidate belarriak.

—Erroldan! Oliveros! Eginhardo! ... Frantzia bihotz-bihotzean jo diagu!!

Ene herrikideen oihuak dira. Orok bat eginik lortu dugu. Igarobidea garbitzearekin batera inguruko sarraskiaz gozatuz basoetan ezkutatu gara, euskaldunon garaipenarekin gozatzera. Erlantz gorrixka bat egin da zeru-sabaiaren jabe. Azken

egunotako ilunantz gogaikarriak izarrarte mugan
irristatuz doaz.

Ortzian galduriko irrintzi baten oihartzunak
Añamendiak emeki laztandu dituen anartean...